

berriak

Triforio

-tik



araba
álava



Mundua Santa Maria katedralean pasieran

Munduko edozein txokotatik bisitatu daiteke dagoeneko Santa Maria katedrala, birtualki. Tenpluaren web-orri berriko (www.catedralvitoria.eus) eskaintza erakargarrienetakoak dira paseo birtualak: denboran zeharreko bidaia dira, non zaharberritze-prozesua hasieratik gaur arte ikus daitekeen. 2001ean hasten da ibilaldia, barrualdeko indusketak hasi aurretik. Orduetik, argazki panoramikoak eta esferikoak egin dira aldizka, eta egungo


irudiekin osatu dira. Hala, bisitari birtualak tenpluko leku baten (triforioaren, kanpandorrearen, kripten, errondako pasabidearen...) hainbat ikuspuntu hautatu ahal izango ditu, zaharberritze-lanaren prozesuko etapetan nolako bilakaera eduki duen ikusteko. Esperientzia benetan ikusgarria egiteko, kokapen beretik hainbat urtetan egindako panoramak sinkronizatu dira, eta, horri esker, egungo ikuspegia nahi dugun urtera eguneratu dezakegu. Santa Maria gerora bertatik bertara bisitatzeko gonbidapena da.



Welcome/Bienvenue/Willkommen/Benvenuto

Azken urteotan, gero eta gehiago hauteman daitezke Santa Maria bisitatzeko duten bisitari atzerritarrak, 2017an % 21 hazi baita horien kopurua. Hogei nazionalitate baino gehiagoko jendea elkartzen da turisten joan-etorri horietan, eta ohikoa da tenpluan hainbat hizkuntza entzutea. Bisitaren ñabardura guztiez gozatzeko eta hizkuntza oztopoa izan ez dadin, audiogidak eskuragarri daude jada ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz, euskaraz eta gaztelaniaz gain. Era berean, ibilbidearen hasieran proiektatzen den ikus-entzunezkoa ingelesez, frantsesez eta alemanez ere ikus daiteke. Azken batean, hazten jarraitzeko hobekuntza onak dira horiek.





Agenda

Musika

Martxoak 17, 19:30ean

Santa Maria katedralaren erdiguneko nabea

Aranguren Ibarreko (Nafarroa) abesbatzaren kontzertua.

Aste Santua prestatzeko bosgarren ebanjelioaren kontzertua joko du.

Sarrera doan

Hitzaldi-zkloa

'Europako kultura eta oinarriak'

Martxoak 21, 19:30ean

'El hecho religioso y las patologías de la memoria en Europa hoy: memoria, conciencia, proyecto' hitzaldia emango du Melchor Sánchez de Toca Kultura Kontseilu pontifikalaren idazkariordea.

Apirilak 18, 19:30ean

'El cine y su influencia en el hecho europeo' hitzaldia emango du José Luis Cienfuegos, Sevillako Zinema Europarraren Jaialdiko zuzendariak.

Micaela Portilla aretoa - Europa Biltzar Jauregia

Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte.

Erreserba-sistema berria

Azken urte honetan, Santa Maria Katedrala Fundazioak ahalegin berezia egin du bere irudia eta bisitariekin komunikatzeko kanalak eguneratzeko. Horretarako, **www.catedralvitoria.eus** weba berritu du, orri bisuala, intuitibo eta gailu mugikorretatik guztiz nabigagarria eskaintzeko. Gainera, erreserba-sistema berria sartu da, aurrekoa baino errazago erabiltzen dena. Bertan, askotariko aukeren artean hauta daiteke (katedrala, katedrala eta dorrea, katedrala eta harresia edo XI. mendeko Gasteiz eta harresia), eta bisitan tokia edukitzea bermatu. Sistemak ez du linean ordaintzea eskatzen; bisitarako sarrerak jasotzean egiten da ordainketa.

GANGAREN JASOTZE-LANAREN SEKRETUAK

2016ko uztailean, katedraleko museoa inauguratu zen. Lurpeko kriptaren eremuan eta nabearen barnean kokatu da, eta bisita gidatuak osatzen ditu. Puntu aipagarrietako bat da 'Santa Maria: gaixo zegoen arkitekturarentzako irtenbidea' ikus-entzunezkoa, katedralaren egiturazko oreka berrezartzeko egin diren jardunak azaltzen dituena. Horren bitartez, bisitariak zaharberritze-prozesuko lanik ikusgarri eta ongien dokumentatuetako bat ulertu ahal izango du: 2010ean hego gurutzerian egindako gangaren jasotze-lana. Hain justu ere, hortxe erori zen plementuaren puska bat, eta, ondorioz, katedrala jendearentzat itxi eta hasiera eman zitzaizen zaharberritze-lanei.

